

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko egin behar diren jarduera guztietatik 3 hauek aukeratu ditugu gure zerbitzua arrakastatsua izateko.

Tratu onak: Gure bezeroei bilatzen, behar eta merezi duten arreta eta denbora emango diegu, eta eskatzen digutena ulertzen saiatuko gara. Horrek bezeroari gugan konfiantza izaten lagunduko dio, eta bezeroari arreta hobea eskaintzen ere lagunduko digu, bezeroak zer nahi duen zehatz-mehatz jakingo baitugu, eta ezin hobeto asebate ahal izango dugu. Esperientzia berriak probatuko ditugu, hala nola edariak, kafea edo tea eskaintzea bezeroei. Xehetasun txikietan kontzentratuko gara, adibidez, zure ohiko bezeroen izenekin gogoratzea. Kafeak eskaintzen baditugu, saiatuko gara gogoratzen nola gustatzen zaien, snack txikiak gehitu, itxaroteko galletak bezala, edo, nahi izanez gero, zerbitzuan zehar. Opari txikiak eskaintzea, hala nola produktu berrien laginak, edo poltsiko tamainako lozioak, etorkizuneko deskontuak eskaintzen dizkieten bezero errepikarien txartelak.



Ibilbideak: Gure kamioia handia izango denez erraz gidatu ahal diren bideetatik joan behar gara. Horregatik, oztoporik ez dagoen eta zabalak diren errepideetatik joango gara Bilbotik, Getxotik, Leioatik, Portugaletetik eta hainbat inguru desberdinetatik eta horrela gure bezeroei erosotasuna emango diegu beren etxe ondoan aparkatuz. Gure inkestak ikusita bezero gehien izango ditugun lekua Leioa izango da eta ez dugu arazo handirik aurreikusten gune desberdinetara iristeko. Halaber, ibilbide ezberdinak egingo ditugu astean zehar. Astelehen, astearte eta asteazkenetan Bilbotik eta Getxotik arituko gara eta ostegun eta ostiraletan kanpoaldean daude herri txiki eta Portugaletera joango gara. Azkenik, larunbatetan Leioan bertan geldituko gara.

Kamioiaren disenua: bikain antolatua izan behar dugu gure kamioia barrutik zerbitzu ezinhobea eskaintzeko. Horretarako, espazioak oso ondo aprobetxatu behar ditugu eta beharrezkoa dena eskuragarri izatea komeni zaigu. Hori gutxi balitz, barrutik zein kanpotik erakargarria izan behar da jendearen arreta deitzeko. Kamioia apaintzeko erabiliko ditugun

koloreak biziak izango dira: horia, laranja eta arrosa. Azkenik, kamioiaren kanpoaldean, gure logoa ipiniko dugu sloganarekin batera.